

1929ko MUSIKA-BANDIA

San Migeletan gagozen ezkerro, egogixa pentsau xaku Oñatiko musika-bandia ekartia hillaibete honetako fotografixa zaharraren saillera. Izan be, ixa gizaldi batian oso lotuta egon dira herriko jaixak eta bandia. Egunen batian, eta beranduegi izan baiño lehenago, egin biharko da Oñatin egon diran musika-banda guztien ganorazko historixia, horretarako gaixa badago-eta.

Garuko argazki honetan unibersidade aurrian agerketan xakun musika-taldia II. Errepublikia baño lehentxuagokua da, 1929kua hain zuzen be. Ezta oraingo bandia bestekua, baiña ordurako itxuroso samarra. Horreitako musiko batzuek gerra ostian be jarraitu euen jotzen; Antonino Ibarrondok, gaiñera, zuzendaria-lanetan jardun eben urte askuan, 1970ko hamarkadan bandiak euki eben etenaldira arte.

Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue, ba, argazkiko musikeroak:

Goixenian: Felix **Igartua**, Luis **Guridi**, Antonino **Ibarrondo**, Jexus **Ibarrondo**, Agustin **Egaña**, eta Juan **Soriano Gallarta**.

Erdixan: Felipe **Igartua**, Fruktuoso **Aberasturi**, Kandido **Aberasturi**, Eugenio **Aranguren**, Doroteo **Ugarte**, Juanito **Aldanondo**, Joxe Mari **Arrieta** (mutikua), Agustin **Uranga**, Felipe **Agirre**, Angel **Korkostegi**, Tomas **Palacios** eta Santos **Oñate**.

Behian: Angel **Campos**, Pedro **Madina**, Faustino **Inza**, Pantaleon **Jauregialzo**, Agustin **Zarketa** (mutikua), Tomas **Uribarri**, Jexus **Galdos** (zuzendarixa), Julian **Elorza** eta Rodrigo **Astigarraga**.

Fotografixia Nikolas Ugartek itxittakua da eta informaziñua Nikolasek berak eta Bixente Zabartek eskuratu doskue.

J. E.

**GAS PROPANO ETA GAS NATURALAREN
INSTALAZIOAK
BEROGINTZA ETA MANTENIMENDUA
OROKORREAN**

Zubillaga auzoa, 74. D. Pabilioia OÑATI

Tfnoa: 78 02 65. Faxa: 78 00 33

INGENIARITZA - PROIEKTU ETA INSTALAKUNTZAK

JEGASsa